

# B

BARREN

# Basamortua bizikletaz

Igor Iraolagoitia

TOKIKOM



I. URTEURRENA

## LOLITA MONDRAGON SANCHEZ



*Betiko izango zaitugu gogoan.  
Maite zaitugu.*

Etxekoak



2014ko maiatzaren 17an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, maiatzaren 16an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome eliz-parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

## MIGUEL ANGEL ARRIOLA AIZPIRI



*Gizon jatorra, beti alaia  
gainera eskuzabala.  
Lagunen lagun eredugarri,  
apala eta leiala,  
Plaza auzoak bizi iraun zezan  
egin duzu eginahala.  
Orain deskantsu hartu ezazu  
merezi duzun bezala,  
zauden tokian Aingeru Guardak  
zaindu ta babes zaitzala*



2015eko maiatzaren 9an hil zen,  
63 urte zituela.

Aingeru Guardako jai batzordea

## MIGUEL ANGEL ARRIOLA AIZPIRI



*Sinistu ezinda hemen gaude,  
gorputza dar-dar batean,  
zergatik eta nolatan,  
mila galdera buruan.  
Gaitzak hartu zaituela  
ta eraman etsi-etsian,  
bizi-legea omen da,  
ankerra, baina, batzutan.*

*Hutsunea igariko da,  
etxean berdin kalean.  
Aingeru Guardako plazan,  
Aizpen ta Txirristakan,  
Miguel Angel, ez ahaztu  
zaude gure bihotzetan.  
Besarkada bat, familia  
ta animo atsekabeen*



2015eko maiatzaren 9an hil zen,  
63 urte zituela.

Gorkaren koadrilakoak  
Doinua: Habanera



## Morkaikoren egun handia iritsi da

Iritsi da eguna, Morkaiko Eguna. Prest al dituzu hankak biharko?

Batzuk ordu gutxi barru, eguna argitu baino lehen, herriko plazan elkartuko gara. Goizeko seirak baino lehen plaza inguruko kaleetan ilunpeko isiltasunean tentsio eta presa uneak sumatuko dira, eta elizako kanpaiek goizeko seirak jotzen dutenean, denok abiatuko gara lehen tontorrerantz, Karakaterantz.

Elgoibartar askorentzat oso berezia den tontorra zapaltzerako egunak argituko du eta eguraldiak lagunduz gero, aurrerago egingo ditugun tontorrek ikusteko aukera izango dugu Irukurutzetarantz goazela. Urruti-ra joan gabe etxean bertan ditugun tontor, zelai, baso, iturri eta naturaz ohartarazteko ibilaldi a proposa da Elgoibarko itzulia; merezi du egitea, bizitzan behin bada ere.

Baina bihar herriko umeak ere protagonista izatea nahi dugu, beraiek ere jabetu daitezela inguruan dutenaz. Umeek ere herriko plazatik zein Idotorbetik abiatuta Aiastiera bidea egingo dute, pausoz pauso eta goizaldean irtendako mendizaleekin topo egingo dute Aiastiako frontoian. Goizaldean bezalaxe, eguerdian ere, herriko plazan elkartuko gara, denok elkarrekin, umeei urte guztian zehar egindako tontorreatik dominak banatzeko, eta ibilian galdutako indarrak berreskuratzeko beta izango da, bazkaritan.

Morkaiko Mendizale Elkarteko lantaldeak ilusioz eta gogoz presaturiko eguna da Morkaiko Eguna eta denok mendiaz gozatuz egun polit bat igarotzea du helburu. Herritar askoren laguntasunaren fruitua da Morkaiko Eguna, denon artean egiten dugu Morkaiko Eguna eta guk herritarrentzako lanean jarraituko dugu, mendiaz giro euskaldun batean gozatzeko aukera izan dezagun. Familian, koa-drilan, bikotean... denentzako lekua baitago.

Nire txanda den honetan, urte guztian zehar elkarteari laguntzen dion orori eskerrak emateko aprobe txatu nahi dut. Atsegin handiz, gonbidatuta zaudete. Bihar ikusiko gara herriko plazan!

Eider Iriondo



**“Atsegin handiz, gonbidatuta zaudete.  
Bihar ikusiko gara herriko plazan”**

ESKERTZA

**MIGUEL ANGEL ARRIOLA AIZPIRI**

2015eko maiatzaren 9an hil zen, 63 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARRE**nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia  
**PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz  
**ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika  
**ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro  
**KOLABORATZAILEA**, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larranaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre  
**INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale  
**LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



## LAGUNTAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### Ezintasunak direla eta

Lehengo astean, *Itsasoari begira* erreportaia-  
ren emanaldiari esker, ezintasunez hitz egiteko aukera izan dugu herrian. Lehenik Itxasoren familia zoriondu nahi nuke eta besarkada estu bat bidali kamara aurrean beraien errealitatea kontatzeko eduki duten adoreagatik. Beharrezkoak dira horrelako lanak, jendeak ezintasundunen mundua edo "aniztasun funtzionala" duten pertsonen errealitatea ezagutu ditzan.

Eta inportantea da erreportaje hauek azaltzea, orain arte ezkutaturik egon direlako pertsona hauek, biziko ez balira bezala. Eta pertsonak dira, bere pertsonalitate eta duintasunarekin. Batzuk gauza batzuk egiteko gai dira, beste batzuk, besteak, denok bezala. Familiak, gizarteak eta instituzioak lan egin behar dute beraien eskubi-  
deak bermatzeko eta horrela, seguraski, ez dugu erreportaje hauen beharrik izango. Bizitza honetan denok dauzkagu ahalmen ezberdinak eta horiek indartu behar ditugu, horietan jarri behar dugu begirada eta ez, gabezetan. Ez dugu integrazioaren alde egin behar bakarrik, inklusioaren alde ere egin behar dugu. Ondo dago terapia berezi bat izatea herrian, baina benetan, inklusioa eta gizarte normalizatua nahi baditugu, denok espazio eta ekintza berdintsuak konpartitu behar ditugu, denok aberastuko garelako. Era-kunde publikoek hau bermatu behar dute.

M.A. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.





**Erretxindiko zubia berritu egin behar da:** "Erretxindi auzora doan zubia oso egoera txarrean dago. Lurra hondatuta dago, eta berritzeko beharra duela iruditzen zaigu. Udalak kontu gehiago izan beharko luke Erretxindi eta Basarte auzoekin".



**Zaborra biltzeko kamioiak edukiontzia espaloian uzten du:** "Guass dantzalekua zegoen gunean zabor edukiontzia daude. Lehen, espaloian kokatuta zeuden eta oinezkoen bidea oztopatzen zuten. Udaleko arduradunek mugitu zituzten apur bat arazoari irtenbidea emanez, baina zaborra biltzeko kamioiak edukiontzia husten duenean, berriz espaloian uzten du, traban. Hori zaintzeko eskatu nahi nuke".



**Mintxeta ingurua oso ilun dago:** "Mintxeta futbol zelai inguruaren kanpoko pasealekuan ez dago farolarik, eta gauez oso ilun gertzen da. Ezin izaten gara korrika egitera edo ibiltzera joan, eta eskertuko genuke ingurune hori argizatzea. Eskerrik asko".



**Txalo bat historiaurreko erakusketa antolatu zuten:** "Ikastolako 6. mailako ikasleok Jose Julian Marquez eta Juan Mari Arruabarrena txalotu nahi ditugu, aurten ere historiaurreari buruzko erakusketa antolatu dutelako".



**Txalo bat eskolan gurasoen parte-hartzea sustatzen laguntzeagatik:** "Kalamua Guraso Elkarteak *Guraso Ipuin Kontalaria* ekimena martxan jarri du aurten ere, eta errekor guztiak gainditu ditugu! Askok izan zarete zuen seme-alaben geletara ipuinak kontatzera joan zareten gurasoak. Aurten Euskal Eskola Publikoaren Jaia dela-eta, lan asko izan dugu, baina hala ere, eskolako gurasoek eskuzabaltasunez erantzun diguzue, mila esker bihotz-bihotzez, eskolan gurasoen partaidetza sustatzen laguntzeagatik. Txalo zaparrada bat zuentzat!".



**Elgoibarko udal musika banda zoriondu dute igandeko kontzertuagatik:** "Guraso asko gure seme-alabekin gerturatu ginen Herriko Antzokira eta kontzertu paregabea eskaini ziguten musikariek eta gainerako partaideek. Eskerrik asko denei egin zuten lan bikainagatik". Herri Eskolakoek ere eskerrak eman dizkiete: "Duela hilabete batzuk Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren ekimenean parte hartzeko eskatu genizue, baiezkoa eman zenigutelako. Maiatzaren 10eko kontzertua itzela izan zelako. Haurtzako musika baino gehiago, kontzertu pedagogiko bat antolatu zenutelako. Txunditurik eta hunkiturik utzi gintuzuelako, eta joan ziren haurrek musika beste era batera bizitzen ikasi zutelako. Zorionak eta mila esker, Elgoibarko Herri Eskolatik".



## Elgoibarko Udalak eta IMHk euskara sustatzeko hitzarmena berretsi dute

3.000 euroko diru-laguntza jasoko du IMHk 2015ean

Udalak eta IMHk sinatu duten lankidetzaren hitzarmenari esker, Elgoibarko Udalak 3.000 euro emango dizkio IMHri 2015ean, Goazen proiektuaren jardura finantzatzeko laguntzeko. Goazen egitasmoaren helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea da eta makina-erremintaren sektorean eragitea, euskararen erabilera sustatzeko urratsak emanaz: besteak beste, 30+10 mintegia, enpresei eskainitako prestakuntza eta zerbitzuak euskaraz areagotzea edota proiektuak euskaraz sustatzea. IMHko arduradunek adierazi dutenez, 2003tik hona euskara proiektuan egindako lanari esker euskararen presentzia IMHko prestakuntza eta zerbitzu guztietan "nabaria" da, eta "bermatuta" dago. Zerbitzu orduak gora egin dute (%46): Asmaolan mantendu egin da ehuneko altua eta besteetan igo egin da, guztira 49.257 zerbitzu-ordu izan dira euskaraz.

Lan-hizkuntzari dagokionez, orokorrean ehuneko "altuak" direla eman dute aditzera (ahoz %62 eta idatziz %46), baita euskaldu-



nen arteko erabileran (%73 ahoz eta idatziz %63) ere. 2003an neurtutako erabilera (%32) urrun gelditu dela ohartarazi dute, eta aldiz, 2015erako aurreikusitako %65 gertu. Gogoratu behar da datu hau langileek emandako iritzietan oinarritzen dela, beraz balio absolutuak baino joerak hartzen dituzte kontuan.

### Kurtso amaierako bertso jaialdiak eskainiko dituzte ikasleek

Herri Eskolak eta Ikastolak bertsogintzaren bidez lantzen dute ahoz-kotasuna, Gipuzkoako Bertsozale elkartearen laguntzarekin. Aurtengoa proiektu honen hamargarren edizioa izan da, eta 202 ikaslek hartu dute parte. Urtean zehar egindako lana erakusteko bertso jaialdiak egingo dituzte datorren astean. Maiatzaren 20an Herri Eskolako ikasleek jardungo dute bertsoan, eta hilaren 21ean, berriz, Ikastolakoek. Bi saioak 18:00etan izango dira, Herriko Antzokian. Saio hauetan Iñaki Gurrutxaga eta Uxue Alberdi arituko dira.

### Urtea amaitzerako kudeatuko du San Lazaro egoitza Foru Aldundiak



Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak San Lazaro udal egoitza Diputazioari eskualdatzeko hitzarmena sinatu zuten joan zen astean, eta horrenbestez, beharrezkoa den azken izapidea egin dute alundia zentro horren kudeaketaz ar-

duratu dadin. Hitzarmenari esker, urte bukaera baino lehen kudeatuko du egoitza Diputazioak. San Lazaro egoitzak 35 langile inguru ditu eta 48 egoiliar artatzen ditu. Ander Rodriguez aldundiko Gizarte Politikako diputatuak azaldu zuen lanpostu guztiei eta lan-baldintza guztiei eutsiko zaiela. Era berean, agindu zuen ez dela aldaketarik egongo egoiliarrek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatean eta ezta baldintzetan ere.

#### Begoña Mugertzari omenaldia

26 urte egin ditu Begoña Mugertzak San Lazaron lanean, eta erretiroa hartuko du hilabete gutxi barru. Bere azken egitekoa aldundiko arduradunei elkartearen funtzionamenduaren berri ematea izango da. Alfredo Etxeberriak Mugertzak egoitzaren kudeaketan eginiko lana goraiatu zuen, eta egindako lana eskertzeko oroigarri bat eman zioten.



## Izena **Jon Lapeira**



SpainSkills Lanbide Heziketako olinpiadak jokatu dituzte Madrilén, eta Jon Lapeira IMHko ikasleak urrezko domina lortu du CNC proban. Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko heziketa zikloa ikasten dihardu Jon Lapeira azpeitiarrak IMHn. Ikasle eta tutorea orain hiru hilabete hasi ziren olinpiadetarako prestatzen, eta egindako lanaren fruitua jaso dute orain. Hurrengo erronka Lanbide Heziketako munduko txapelketan parte hartzea izango da. Aurten Brasílgo São Paulo hirian jokatuko da, abuztuan.

## Berbia **Enplegu plana**

Elgoibarko Enplegu Planaren barruan, sei langabe kontratatzeko asmoa duela jakinarazi du Elgoibarko Udalak: administraritzako profila duten bi pertsona, peoi lanak egiteko hiru lagun eta komunikazioaren alorrean jarduteko beste bat. Kontratu guztiak lanaldi osokoak izango dira. Hautaketa prozesuan parte hartu nahi duten lagunek Lanbiden izena emanda egon beharko dute. Eskualdean 39 lanpostu sortuko dira.

## Irudia **Lanbide Heziketa kalera**

Euskadiko Lanbide Heziketaren Astea ospatu dute aste honetan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 50 zentro inguruk, tartean Elgoibarko Meka eta IMH ikastetxeek. Lanbide Heziketa gurasoengana eta ikasleengana gerturatu nahi dute, eta horretarako hainbat ekimen egin dituzte. Besteak beste, gelak albo batera utzi eta kalera irten ziren astelehenean Mekako ikasleak. Erizaintzako ikasleek herritarrei tentsioa hartu zieten Kalegoen plazan. Automozioiko ikasleek ere izan zuten orain arte ikasitakoa praktikan jartzeko aukera, eta autoaren aurre diagnosi egin zieten Albitzuriko ikastetxera kotxea eraman zuten herritarrei.



## **Elgoibarko kultura, artea eta ondarea izango da 2016ko egutegirako gaia**

Udalak eta Ongarrik aukeratu dute datorren urterako egutegiaren gaia: Elgoibarko kultura, artea eta ondarea. Argazkiak ezinbestean Elgoibarkoak izan beharko dira eta ez dira onartuko Elgoibarri erreferentziarik egiten ez dioten argazkiak, hau da, edonongoak izan daitezkeenak. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 16a izango da. Argazki lehiaketaren oinarriak herritarren eskura daude Kultur Etxean. Informazio gehiago 943 744 366 telefonoan.

## **Gaztetxeari buruzko erakusketako argazkiak ostu dituzte**

Maalako Gaztetxeari buruzko argazki erakusketa egin zuten joan zen zapatuan Maalako parkean, eta arduradunek jakinarazi dutenez, erakusketako material guztia ostu diete. 14:30ak arte egon ziren erakusketa zaintzen, eta bazkalostean bertaratu zirenean argazkiak falta ziren. Salaketa jarri dute Udaltzaingoa.



# Igor Iraolagoitia

TXIRRINDULARIA

Sei egunez Marokoko basamortuan mendi bizikletaz egiten den Titan Desert probatik itzuli berri da Igor Iraolagoitia (Mendaro, 1975). *Basamortua eskuzabal* proiektuaren barruan joan da, Lea-Artibaiko eta Durangaldeko bost lagunekin batera. Sei egunetan 600 kilometro egin dituzte bizikletaz.

Ainara Argoitia



## “Hango baldintzek egiten dute gogorra Titan Desert proba”

**Nolatan animatu zinen Titan Desert proban lehiatzera?**

Kasualitatez. Baneukan aurten handiren bat egiteko gogo, baina ez neukan garbi zer. Duela bi urte Italiara joatekotan ere izan nintzen, baina plan hura ez zen irten eta arantza bat baneukan. Halaxe, urtarilean lagun batzuk Titanera zihoazela jakin nuen, eta haginak ere zorrotzu zitzaizkidan! Galdetu nien ia eurekin joaterik banuen eta baietza eman zidatenean ez nuen dudarik egin. Noiz batuko nituen atzera bost lagun halako proba baterako?

**Proiektu solidario baten barruan joan zarete.**

Bai, baina nik neuk ez daukat parterik hor. Nik nire parte ordaindu dut eta bizikletan ibiltzera joan naiz. Aurrez eramanda zituzten trasteak-eta garraiatzen lagundu diet han, jakina, baina horretara mugatu naiz.

**Derrigor egon behar zinen sasoiko izena eman zenuenean, urtariletik maiatzera ez dagoelako horrenbeste denbora ere prestatzeko.**

Ba ez. Egia esan, bizikletan hasi gabea nintzen artean. Izena eman, eta hurrengo astean hasi nintzen. Askok ez didate sinistu ere egingo, baina 3.000 kilometro ez nituen egingo hau prestatzeko, eta neuk ere banuen beldurra, ez pentsa! Hala ere, bizikletan ibiltzea baino gogorragoa

egin zait prestatzera lanena: eraman beharrekoen zerrenda egin, bizikleta bera eta ordeko piezak prestatu, izena emateko bete behar diren kontu guztiak bete... Burokrazia handia dago, eta neri oso nekagarria egin zait.

**Modu berezian prestatu zara harako?**

Ez bereziki. Neri berez gehiago gustatzen zait ibilbide gorabeheratsuetan ibiltzea, baina Titanerako prestatzeko gehiago ibili naiz lauan, baina denbora luzeagoko entrenamenduak eginez.

**Muturreko kirol proba dela esaten dute. Diotena bezain gogorra al da?**

Ez. Titan baino proba gogorragoak badaude hemen urrutira joan gabe ere; Proba hau hango baldintzek egiten dute gogorra, baina ipurdia eta urdaila zainduz gero, eta beroa ondo jasaten baduzu, bestea ez da horrenbesterako. Kontua da aipatu ditudan baldintzak ez daudela norbere esku. Hori bai, iritsi eta lehenengo gauean hasi zitzaizkigunean ipurdia zenbat sufritzen zuen esanez... Kuloteak ere estrenatu gabeak, baina aurrez garbitutakoak erabili behar zirela esan zigutenean... ia jausi nintzen atzeraka, nik justu-justu kuloteei etiketak kentzeko astia izan nuelako. Gero jabetu nintzen ibilbidearen malkartsuagatik baino gehiago beroagatik sufritzen zuela atzealdeak. Sekula izan ez dudana izan dut han: jarlekuan jarri ezineko mina lehenengo egunerako. Tenperaturak oso altuak ziren, 47 gradu bueltakoak, baina esan beharra dago bizikletan errazago jasaten zela egonean baino. Ez da hemengo beroa! Haize handia izan genuen, baina sasoia ez zelako-edo, zorionez zurrunbilerik behintzat ez genuen izan. Harrapatu baligu zurrunbilo horietako batek txori kumeak bezala jausiko ginen denok!

**Zer da halako proba batean zailena?**

Burua kontrolatzea. Bi deserto ikusi ditugu: harrizkoa eta hondarrezkoa, eta hondarrezkoa, berez bizikletarako zatarragoa ematen duena, niri errazagoa egin zait. Harrizkoa ikaragarri zatarra zen: Bi menditza-



rren artean, zulo batean joatea bezala zen. Orduak eta orduak han, harririk haiek beste ezer ikusten ez genuela.

### **Eta nola egiten da burua gogor mantendu eta batez ere norbere esku ez dauden baldintza gogor horiei aurre egiteko?**

Ura itxuragabe edanda, eta sendo janda; gogorik gabe ere jan egin behar da han. Gorputzak ere erantzun egin behar du, jakina, baina ondo jatea eta ondo hidratatzea ezinbestekoa da. Bi hilabeteko urak astebetean edan ditut han! Gure taldeko batek, baina, izan zituen deshidratazio eta isolazio arazoak lehenengo egunean. Han ibili ginen bera eraman ezinda, bultzaka eta abarrean. Gu berez sei lagun joan ginen, baina hiru laguneko bi taldetan lehiatu ginen, elkarri laguntzeko. Buruak itzel sufritzen du. Han bakar-bakarrik gelditzen bazara, jai daukazu! Zerbait apurtzen bazaizu, adibidez, bi-hiru ordu egon behar zara eguzki galdatan antolakuntzako zain, eta nik neuk ez nuke nahi halakorik!

### **Joan aurretik zerik kezkatzen zintuen gehien?**

Urdailak. Beste herrialde batera zoazenean urdailak beti sufritzen du, baina zorionez ni neu libratu naiz. Jateko ona eman digute. Arroz zuria, arroz integrala, berdurak, lentejak, garbantzuak, oilaskoa... denetarik izaten genuen etapak bukatu ostean. Anoa postuetan, hori bai, edariak baino ez ziren izaten. Hori bai, jan nahi bazenu 17:00etarako iritsi behar zenuen kanpamendura, hortik atzera kaka-hueteak eta azeitunak baino ez zituztelako uzten. Orduarena ez zuten beti errespetatzen, hala ere. Lehenengo etapa, esaterako, zortzi orduan egitekoa zen, baina ikusita zortzi ordu horien barruan erdiak ere ez zirela iritsi luzatu egin zuten. Ez zitzaie komeni lehenengo egunerako parte hartzaileen erdiak galtzea, jakina, eta horregatik ez zituzten bota, nahiz eta bost orduko zigorra jarri. Azkenean, guztira 100 bat pertsona erretiratu dira, baina malgu jokatu dutelako.

### **Nola antolatzen zenuten eguna?**

5:30ean jaikitzen ginen gu. Berez, 6:00retan jotzen zuen sirenak, baina aurretik ibiltzen ginen gu komuneko jirak-eta egiteko. Kontuan izan, 600 lagunentzat 16 komun zeudela eta 14 bat dutxa, eta handik pasatu behar ginela denok. Sekulako ilarak sortzen ziren. Gosaltzera joaten ginen gero eta ondoren kremak ematen pasatzen genuen beste tarte luze bat. Han beste krema ez dut sekula eman nik! 7:30ean ura banatzen hasten ziren. Parte hartzaile bakoitzeko hiru litro ematen zituzten, derrigorrean gainean eramateko, eta 7:45ean maleta eraman behar zenuen kamioira, hurrengo kanpalekura eraman zezaten –ordurako eraman ezean, arriskua zenuen maleta gabe gelditzeko–. Ondoren, pultsera bat jartzen zizuten eta sinatzera joan behar izaten genuen, irtetera gindoazela edo behintzat bizirik geundela konfirmatzera, alegia. Sakelako telefonoak edo gps-a kargatu nahi bazenituen ere, ilara egin behar izaten zenuen. Egia esan, dena gogoan izatea ere ez zen erraza. Horixe egiten zitzaidan neri astunena. Baina ikustekoa zen hango antolakuntza. Kontuan izan behar da urik ez zegoela berez han eta zisternetan eramaten zutela, eta argia ere, generadorearekin sortzen zutela. Neurri zorrotzak zituzten jarrita, baina behar ere bai! Dutzatzeko, adibidez, hiru minutu zenituen gehienez, eta asko da hori kontuan hartuta non geunden.

### **Kanpamendua bera nolakoa zen?**

200 bat haimako kanpamendua zen gurea, batetik bestera eramaten zutena, eta parte-hartzaile eta antolakuntzako lagunak kontuan hartuta, 900-1.000 lagun izango ginen. Kexatzen ziren batzuk hango baldintzetaz, baina zer nahi du ba jendeak! Ingurura ez al dute begiratzen! Han ez dute ezer, eta gu aberaskilo batzuk gara han. Izugarri ernegatzen nintzen jendeak jatekoa platerean lagatzen zuenean. Zuk badakizu zer den hori hangoentzat? Jendea oso egoista da. Hipokrita xamarrak ere bada gu hara joatea, egia esan, eta horrek ere zer pentsatua eman dit.

### **Zer nolako esperientzia izan da?**

Izugarri ona. Askok ikasi dut. Elkarbizitza inoiz ere ez da erraza, eta han are gutxiago. Isil-isilik aguantatu behar dira han gauza asko. Nik lagunei ere esaten nien: 'Hemen indarrak hanketan behar dira, ahoan barik'.

### **Etapak nolakoak ziren?**

Sei etapa izan dira, ezberdinak denak. Batez beste 6,5 ordu egiten genituen egunero bizikletaz. Etapa gogorragoak izan dira, baina lehenengo eguna da gogorrena, ipurdiak sufritzen duenagatik. Ikustekoak ziren jendearen atzealdeak!. Sekulako begiak zituzten batzuk atzean, haragi bizitan.

### **Aitortu zenidan, hala ere, bizikletako proba politalagoak egin izan dituzula.**

Hori egia da. Proba teknikoagoak gustatzen zaizkit. Lehenengo etapa, hori bai, oso polita egin zitzaidan; gogorra, baina polita. Bigarren etapa zailtasun gabea zen, joan eta joan aspergarri horietakoa. Hirugarren eta laugarren etapei *etapa maratón* deitzen zieten. Horien zailtasun handiena zen basamortuaren erdi-erdian lo egin behar genuela eta gau hortarako behar genituen traste guztiak eta egun horretako janak eta bihar munekoak geuk eraman behar genituela gainean, eta gainera, hironaka barik gau horretan 300 laguneko bi taldeetan egin behar genuela lo haimetan. Bi egun izan ziren era horretan. Laugarren etapa oso txarra izan zen. 102 kilometroko ibilbidea zuen, eta zati handi batzuk oinez egin behar izan genituen hondarretan. Bosgarren etapa orientazioko etapa zen.

nean, eta gainera, hironaka barik gau horretan 300 laguneko bi taldeetan egin behar genuela lo haimetan. Bi egun izan ziren era horretan. Laugarren etapa oso txarra izan zen. 102 kilometroko ibilbidea zuen, eta zati handi batzuk oinez egin behar izan genituen hondarretan. Bosgarren etapa orientazioko etapa zen.

### **Zer da hori?**

Iaz egin zuten lehenengo. Baina iaz 40 kilometro izan ziren inolako seinalerik gabe egin beharrekoak, eta aurten, berriz, 102 kilometro izan dira. GPSaren laguntza baino ez zenuen, eta egia esan alde aurretik izugarriko beldurra genien etapa horri, baina bukaeran horixe izan da politena, jolas antzeko bat izan zelako. Hiru bat kilometro dunetan egin behar zenituen, eta gogorra zen, baina paisaiak hain ziren ederrak, nik oso gustura egin nuela. Txarrena izan zen galduta ibili nintzela. Sekulako estuasuna pasatu nuen. Hiru kilometro pasa egin nituen galduta, fede guztia GPSan jarrita. Hilda iritsi ginen, baina ondo. Etapa horretan barrua ere mugitu zitzaidan itsu bat bizikleta gainean ezinean ikusi nuen. %3 ikusten zuen begi batetik eta %5 beste batetik. Nik ez dakit zelan egingo zuen hark lehenengo etapako jaitziera kriminal haietan moldatzeko, baina moldatu zen itxuraz. Ezinaren ezinez negarrez ere ikusi nuen bi-hiru egunetan, baina egin zuen. Hark bai daukala meritu! Garbi dago gure gorputzak geuk uste baino gehiagorako gai direla.

**“Garbi dago gure gorputzak geuk uste baino gehiagorako gai direla”**

## Umeentzako musika ekitaldiak izango dira maiatzeko domeketan, 'Txikimusika' egitasmoaren barruan

**E**kainaren 7rako antolatu dute Euskal Eskola Publikoaren jaia, eta horren harira, hainbat eta hainbat ekitaldi egin dituzte urte osoan zehar. Horietako bat da *Txikimusika*. Sinuosek, Udal Musika Bandak eta musika eskolak elkarlanean, etxeko txikientzako musika ekitaldiak antolatu dituzte maiatzeko domeketarako. Joan zen astean izan zen lehenengoa: Udal Musika Bandak umeentzako kontzertu berezia eskaini zuen Herriko Antzokian. Kontzertua umeentzako bereziki prestatutakoa izan zen, eta musika piezak jotzeaz gain, antzestu ere egin zituzten

hainbat abesti. Umeek hartu zuten protagonismoa, eta horren erakusle izan zen zuzendari lanetan ere ume bat jarri zutela. Herriko Antzokia txiki geratu zen, eta ikusleak oso gustura geratu ziren emanaldiarekin.

Beste hiru domeka ditu oraindik maiatzak, eta horietako bakoitzerako musika saio bana prestatu dute. Domeka honetan Mursego musikari eibartarrak bere mundua gerturatuko die umeei. Hilaren 24an, berriz, Belceblues musika taldeak bluesaren historia gerturatuko die umeei, eta azkenik hilaren 31n Mendaroko Munlet biko-



*Mursegoren emanaldia izango da domekan.*

teak rocka eta elektronikaren munduan barneratzeko aukera eskainiko die etxeko txikienei. Hiru saioak Kultur Etxeko sotoan izango dira, 17:00etatik aurrera.

## Galiziarren jaiak ospatuko dituzte asteburuan



Asteburu osoko egitaraua prestatu du Galiza Etxeak Dias das letras galegas jaiak ospatzeko. Azken urteotan bezala, Aita Agirre plazan izango dira ekitaldi gehienak, gaur hasi eta domekara bitartean. Gaur,

19:30ean, hasiko dituzte jaiak Jose Filgueira Valverderen omenez, eta inaugurazio ekitaldi horren ondoren, Galiziako musikuluak dastatzeko aukera egongo da. Musika giroa Compostela orkestrak jarriko du gaurkoan. Bihar 11:00etan hasiko dute eguna, Galiziako produktuen dastaketarekin, eta beste hainbat ekitaldiren artean, dantza erakustaldia eskainiko dute Haritz dantza taldeak eta Galizako Banda de Gaitas de Piloño taldeak, Kalegoen plazan. Domekan bukatuko dira jaiak. Egitarau osoa agendan duzue.

## Lipdub-a eta bazkari herrikoia prestatzen ari dira 'Euskarak 365' ekimenaren barruan

Elgoibarko euskaltzaleak hasi dira dagoeneko Euskararen Nazioarteko Eguneko ospakizunak prestatzen, eta aurtengo programak bi ekintza nagusi izango ditu: batetik, lipdub-a egingo dute, Maalako parketik Kalegoen plazaraino, eta gerorako herri bazkaria antolatu dute. Azaroaren 28an egingo dute *Euskarak 365* egitasmoa, 13:00etatik aurrera.

Ekimenak parte-hartzailea izan nahi du, eta ahalik eta elkarte-erakunde eta herritar gehien biltzea nahi dute antolatzaileek. Ekimenean parte hartzera animatzen zaretenok, esan zuek ere parte hartu nahi duzuela egitasmoa aurkeztu dizuenari, edota idatzi e-posta hauetako helbideren batera, maiatzaren 26a baino lehen: [elgoibarmusika@gmail.com](mailto:elgoibarmusika@gmail.com) / [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus). *Euskarak 365* ekimenaren aurkezpen publikoa maiatzaren 27an egingo dute musika eskolako auditorioan, 19:00etatik aurrera.

### 'Deba 100 hitzetan' literatur lehiaketa irabazi du Inma Mugertzak

Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak antolatu dute *Deba 100 hitzetan* literatura lehiaketa, bigarrenegoz. Aurten Deba ibaiarekin zerikusia zuten idazlanak aurkeztu behar ziren lehiaketara, 100 berba baino gutxiago erabiliz. Euskaraz idatzitako lanen artean Inma Mugertza elgoibartarrak aurkeztutakoak jaso du lehen saria. Inma Mugertzak idatzitako testua irakurri nahi duenak [www.barren.eus](http://www.barren.eus) atarian aurkitu dezake.







# Alkategaien hitza

**U**dal eta Foru Hauteskundeei eskaintako tarte berezian, Mendaroko alkategaiek BARRENEK egindako hamar galderari emandako erantzunak irakur ditzakezue gaur. Elgoibarkoei egin zitzaizkien galdera berberak egin zaizkie Mendarokoei ere, eta epe bera izan dute erantzuteko. Datorren asteko alean, berriz, alkategai guztien perfilak argitaratuko ditugu paperean.

Interneten, berriz, zuzeneko elkarrizketa digitalak egingo ditugu Elgoibarko alkategaiekin. Ordubate izango dute alkategaiek herritarrek zuzenean egingo dizkieten galderari erantzuteko. Hala ere, ordubate horretan ordenagailu aurrean egon ezin duten herritarrei ere galderak egiteko aukera emate aldera, galderak aurrez bidaltzeko aukera ere eskainiko dugu, aste honetan Mendarokoekin egin dugun antzera. Horretarako [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera bidali behar dira galderak, zein alkategairentzako diren zehaztuta. Sofia Vazquez PPreu hautagaiarekin hasiko dugu elkarrizketa digitalen txanda, astelehenean, maiatzaren 18an. Herritarren galderari erantzuten hurrengoa Nerea Alustiza izango da, PSE-EEren hautagaia. Maiatzaren 19an etorriko da gurera Alustiza, eta eguaztenean, hilaren 20an, Jose Luis Ibarzabalen txanda izango da. Elkarrizketa digitalen txanda EAJren alkategai Ane Beitiak itxiko du maiatzaren 21ean, eguenean.

## Hauteskunde kanpaina

### “Gipuzkoa berria” nahi dutenen talde argazkia atera zuten zapatuan Elgoibarren, EHBilduk deituta

**G**ipuzkoa “justuagoa, solidarioagoa eta orekatuagoa” eraiki nahi du EHBilduk, eta “Gipuzkoa berri hori” eraiki nahi dutenei dei egin zieten zapatuan Kalegoen plazara batzeko, talde argazkia ateratzeko. Jon Peli Uriguen eta Jose Luis Ibarzabalek hartu zuten hitza ekitaldian eta aldaketa bermatu dezakeen indar bakarra EHBildu dela nabarmendu zuten biek.

Hilaren 19rako, berriz, ekitaldia antolatu du Elgoibarko EHBilduk. Kalegoen plazan izango da, 19:00etan. Mendaron, hilaren 22an, egingo dute, 20:00etan Mendarozabalgo plazan.



## SONIA GARCIA - EHBILDU MENDARO



### **1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?**

Orokorrean ikusita, kudeaketa arduratsua egin dugula iruditzen zait. Nahiz eta inguruko egoera ekonomikoak lagundu ez, gastu korrontea kontrolatzen eta optimizatzen saiatu gara. Legegintzaldia oso giro onean eraman dugu, eta horren emaitza herrigintzan nabaritu da gehien. Herriko aberastasunean oinarrituta, herri kultura plazaratzea, indartzea eta birsortzea izan da gehien sakondu dugun helburuetako bat. Oro har, guztiz bete ditugula esatera ausartzen naiz edo behintzat esparru gehienak landu eta garatu ditugula: irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetu dira herrian zehar, haurrentzako parkeetako haur-jolasak berri-itu dira, landa eremura lotuta dauden bideak ere bai, eraginkortasun energetikoa, Ongizate Sailarekin lotuta dagoen larrialdietarako diru-laguntzen protokoloa, kirol instalazioak, jaiak, azoka, herri kirolak... Arlo horietan guztietan berdintasuna kontuan izan da. Eta noski, euskarearen jakintza, transmisioa eta erabilera ere bultzatu ditugu.

### **2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?**

Orain arte marraztu dugun bideak jarraipena izan dezan, ondo egin duguna izango da hurrengo legealdirako programaren abia-

puntua eta zutabe nagusia. Guk mendaroar guztien mesedetan kudeatuko dugu Udala.

### **3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?**

Parte-hartzea benetan anitza da Mendaron. Herri txikia izatean Udalak herritarrekin daukan kontaktua zuzen-zuzena da, eta baliteke, baita ere, biderik errazena izatea beharrak ezagutzeko. Hala eta guztiz ere, gure herri programan proposatzen dugun bezala, sortu litezkeen lantalde irekiei aurrekontuaren zati bat zuzenean kudeatzeko aukera eta eskumena emango diegu. Prozesu parte-hartzaile zehatzak antolatuko ditugu erabateko gardentasunez, Mendaro guztion artean egin nahi dugulako.

### **4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrak. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?**

Zorionez, Debabarreneko langabezi tasa baxuena daukagu gaur egun Mendaron, baina hala eta guztiz ere, ez dut uste Udal Admi-





# “Mendaroar guztien mesedetan kudeatuko dugu Udala”

nistrazioak konpondu lezakeenik gure gizarteak pairatzen duen krisi ekonomikoa. Dauzkagun datuen arabera, langabezian dagoen jende kopuru handi bat kualifikazio gabeko jendea da, eta garrantzitsua da oso Udalak formazioa emango dien proiektuak babestea eta bultzatzea, eta, nola ez, eskualdeko enplegu planak garatzea, ahalik eta herritar gehienek lanerako aukerak eduki ditzaten.

**5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitze eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?**

Bai, egia da. Gure Esku Dago bezalako herri mugimenduei esker bihurtu da sostengu indartsu bat herrien eta herritar guztien erabakitze eskubidea. Uste dut euskaldun sentitzen den edonork ilusio handiz bizi behar lukeen prozesu demokratikoa dela, herritarrek bultzatua.

**6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?**

Elkarbizitza elkarrekin bizitzea eta lan egitea da, elkar errespetatuz, enpatiaz eta begikotasunez, solidaritatez eta elkar ulertuz, ni izateari zertxobait uko eginez eta zugar eta besteengan gehiago pentsatuz, adostutakoa errespetatuz eta konpromisoak betez. Indarrean dauden politika ezberdin asko aldatu beharko lirateke elkarbizitza hitzak esan nahi duena betetzeko.

**7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?**

**“Kudeaketa gardena, irekia, arduratsua eta partehartzailea eragingo duen udal gobernua aurreikusten dut”**

**“Gure egunerokoan eragina duten gaien inguruan hitza eta erabakia eman nahi diegu herritarrei”**

Pisu handia daukate, bai euskarak eta baita euskal kulturak ere. Administrazio bezala, hiru ardatz dira guretzat garrantzitsuak: euskararen ezagutza zabaltzea, euskararen erabilera handitzea, eta euskararen kalitatea hobetzea. Ekimen ugari antolatu ditzake Udalak, baina garrantzitsuena beti ere euskaldun izatearen kontzientzia eta nahia izatea dira.

**8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?**

Kudeaketa gardena, irekia, arduratsua eta partehartzailea eragingo dituen udal gobernua aurreikusten dut, herritarretatik abiatutakoa.

**9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?**

Esan beharrik ez dago eta gehiago gurea bezalako herri txiki batean herrigintzan diharduten eragileen parte-hartzerik gabe

ezinezkoa litzatekeela orain arteko kudeaketa garatzea. Administrazio publikoak eragileen zerbitzura egon behar du.

**10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?**

Herritar eta eragileekin etengabeko harremana izaten jarraituko nuke. Herri eragileekin batzartu. Gure egunerokoan eragina duten gaien inguruan hitza eta erabakia eman nahi diegu herritarrei, Mendaro guztion artean eraiki nahi dugulako. Guztien konfidantza eskertu eta lanean jarraitu.

## IRUNE BERASALUZE - EAJ MENDARO



### 1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Oposizioan egon gara lau urtean, Bilduren gehiengo osoa izan duen udaletxe batean. Ez dugu aukerarik izan gure programa aurrera eraman ahal izateko. Arlo horietan guztietan berdintasuna kontuan izan da. Eta noski, euskararen jakintza, transmisioa eta erabilera ere bultzatu dira.

### 2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?

Gure helburua pertsonak eta beraien ongizatea dira. Mendarorik guztien bizi-kalitatea hobetu nahi dugu, udal zerbitzuak bermatuz eta hobetuz, baliabide publikoen kudeaketa garbia eta arduratsua eginez.

### 3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Aurreko legegaldiaren bukaeran, parte hartzeko prozesu bat abian jarri genuen, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, baina legegaldi aldaketa etorri zen eta dena bertan behera geratu zen. Parte-hartze prozesuetan sinesten dugu, eta abian jarriko ditugu.

### 4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarren. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

**“Gure helburua pertsonak eta euren ongizatea dira”**





# “Mendaroar guztien bizi-kalitatea hobetu nahi dugu”

Enpresa jarduna eta herriko merkataritza sustatuko ditugu. Debegesaren bidez eta beste erakundeekin elkarlanean, gazte ekintzaileei lagundu eta herrian dagoen enpresa eta merkataritza ehuna mantendu eta hazi arazi nahi dugu.

**5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitzeko eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?**

Herri honek bere etorkizuna demokratikoki erabakitzeko eskubidea dauka eta demokratikoki erabakitakoa errespetatua izan behar dela argi daukat. Erabakitzeko eskubidearen alde dauden alderdiak ados jartzea ezinbestekoa da, eta baita gizartearen konpromisoa ere. Ados nago Ibarretxe lehendakariak esandakoarekin: Katalunya eta Euskadiko herritarri kontsulta baten bidez erabakitzeko eskubidea oztopatzen badigute, alde bakarreko independentzia aldarrikapenak iritsiko direla, beste irtenbiderik ez dugulako izango.

**6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?**

Bake eta elkarbizitzaren arazoei konponbide osoa eskaintzeko gaitasunik eta eskuduntzarik ere ez daukate udalek, baina asko egin daitekeela uste dut bakea sendotu eta elkarbizitzaren normalizazioaren alde, zutabe etiko eta demokratikoetan oinarrituz eta giza eskubide guztiak errespetatuz. Esate baterako: iritzi ezberdineko pertsonen arteko foroak edo herri mailako elkarbizitzaren adiskidetzeta sustatzeko ekimenak.

“Parte-hartze prozesuetan sinisten dugu, eta abian jarriko ditugu”

“Euskal kulturari babes osoa eskainiko diogu, eta, nola ez, euskarari”

**7. Euskarak eta euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?**

Pisu handia, nola ez. Udaletik, herriko elkarte ezberdinekin lanean, euskal kulturari babes osoa eskainiko diogu eta nola ez, euskarari. Zoritxarrez, euskara nik nahi baino gutxiago entzuten dut kalean eta erabilera bultzatzeko plan bat jarriko dugu abian.

**8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?**

Herri hau etengabe aurrera eramango duen udal gobernu bat nahiko nuke, herritarrei irekia, baliabide publikoak arduraz kudeatuko dituen, elkarlanerako prest egongo dena.

**9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?**

Nire ustez ezinbestekoak dira herrigintzan ari diren eragileak. Herri baten birrikak eta bihotza direla uste dut, eta gehiago Mendaro bezalako herri txiki batean.

Badirudi gero eta gehiago kostatzen zaigula elkarreetan sartu eta inplikatzera, eta horretan ari direnak zaindu egin behar dira instituzioetatik.

**10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?**

Ez da erraza galdera honi erantzutea, gauza asko egongo direlako seguruenik egiteko, baina dudarik gabe herriko eragile eta elkarte ezberdinekin biltzea lehenetsuen artean izango dut.

## JOSE ANTONIO RODRIGUEZ - PSE-EE MENDARO



### 1. Orain dela lau urte zuen programan agertutako helburuak zein neurritan bete dituzue?

Alderdi sozialistak oposizio serio, zorrotz eta eraikitzailea egin du Mendaroko Udalean. Gure konpromisoak inizatiba bilakatu ditugu, mozioak aurkeztu ditugu osoko bilkuran, baina gehienetan Bilduk atzera bota izan ditu gure inizatibak. Bilduk ez du jakin Mendaroko Udala kudeatzen, eta lau urte galdu ditugu alderdiaren interesak Mendaroko interes orokorren gainetik jarri dituen Udal Gobernu baten erruagatik. Inposizioan eta gehiengo absolutoan oinarritu da euren ekintza.

### 2. Zein izango da zuen hauteskunde programaren zutabe nagusia?

Sozialistok beti pentsatu dugu Udalek, herritarrengandik gertu dauden erakundeak izanik, herrian bizi eta lan egiten dutenengan oinarritutako gobernu programa kudeatu behar luketela; euren ongizatean oinarritutakoa, gazteen etorkizunean, eta bizi garen garai honetan ezinbestekoa da ahalegin berezia egitea herriaren garapen ekonomikoa eta enpleguan. Oraindik krisiaren eragina jasaten ari gara eta, gainera, lau urte oso garrantzitsu galdu ditugu Bilduren erruz. Hori dela-eta, gure programa, gure zeregina eta gure konpromisoa enplegua sustatzean oinarrituko dira. Mendaroko ekonomia indartu eta ongizate zerbitzuak mantentzea da gure asmoa. Enpleguari bultzada emateko enpresei laguntzeko neurriak hartuko ditugu, formazioa sustatuko dugu eta Debegesa Debarreneko Garapen Agentziaren ekintzak indartuko ditugu. Beharrezkoa da balio erantsi handiko enpresak Mendaroko industrigunera erakartzea, eta erakundeen arteko elkarlana sustatu behar da zailtasunak dituzten Mendaroko enpresei laguntzeko.

Era berean, beharrezkoa da Mendaroko landa garapena sustatzea, eta nekazal turismoa eta merkataritza ekintzailetasuna bultzatzeko eta enplegua sortzeko jarriko ditugu aukeratzat.

### 3. Herritarren parte-hartzeaz asko hitz egiten da. Zer bide erabiliko dituzu herritarren beharrak ezagutzeko, haiei erantzuteko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Webgunea bakarrik jarri du Bilduk Mendaroko herritarren arazoak ezagutu eta haien ekarpenak jasotzeko. Sozialistok uste dugu Mendarok behar duela atari garden bat, mendarok guztiak aurrekontuen berri izan dezaten (aurrez aurrekontuak osatzen parte hartuko lukete) eta aurrekontu horiek bete bitartean bi hilero haien jarraipena egiteko aukera izan dezaten. Era horretan, Udalak izenpetzen dituen kontratuen berri ere izango lukete, eta baita udal proiektuak nola betetzen ari diren jakiteko ere. Udal Batzorde bat sortuko dugu guk, zeinean elkarte eta eragile guztiak egongo diren ordezkaturak aurrekontuak, zerga-ordenantza... eztabaidatzeko. Behar-beharrezkoa ikusten dugu herrietako sektore-batzordeak sortzeko, eragileekin dituzten arazok eztabaidatu eta aztertzeko. Diru publikoarekin egiten den guztiaren berri eman behar dugu udal arduradunok aldiro, modu natural eta sinple batean, eta hau ez da bete Mendaron.

### 4. Langabezia datuek eta ekonomiaren atzerakadak kezkatzen ditu gaur gehien herritarrak. Alor horretan zer egitea aurreikusten duzue?

Sozialistok uste dugu Mendaron lanpostuak sortu eta garapen ekonomikoa sustatzera bideratu behar ditugula gure indarrak, Debegesan adostutako neurriak aplikatuta eta baloratuta. Enplegua sortzeko planak sustatu behar ditugu, industriarako lurak gorde eta estu dabiltzan enpresei lagundu, instituzio eskudunekin elkarlanean. Era berean lan-aukerak eta herriko hazkunde ekonomikoa bultzatu behar ditugu, herriko merkatarekin elkarlanean, haien garapena ahalbidetuko duten ekintzak martxan jarri.





# ***“Mendarok negoziatorako eta elkarrizketarako udal gobernua merezi du”***

## **5. Agenda politikoan indar handiz sartu da erabakitzeko eskubidea, hein batean Gure Esku dago herri mugimenduak egindako lanari esker. Zer duzu esateko honen inguruan?**

Sozialista euskal herritarre ez dugu uste erabakitzeko eskubidea lehenesteko kontua denik krisia pairatzen ari den herritarren agendan. Arduragabekeria iruditzen zaigu milaka herritarren eguneroko arazoak konpontzen ez dituzten identitate eta politika gaiak lehenestea agenda politikoan, eta komunikabideek ere horri oihartzuna ematea. Erabakitzeko eskubidea nazionalismoak erabiltzen duen eufemismoa da, independentziaz argi eta garbi ez hitz egiteko.

## **6. Nor bere bidea egiten ari da elkarbizitzarako. Zer pauso ematea aurreikusten duzu prozesu hori azkartzeko?**

Elkarbizitzarako bidea egiten hasteko ezinbestekoa da ETA behin betiko eta baldintzarik gabe desagitea. Desegin eta bertirako desagertu behar da, hori delako euskal gizarteak nahi duena eta hori delako baita ere ETak bere presoek eta libre segitzen duten etakide gutxi horiei egin ahal dien mesederik handiena. Presentzia areagotzen den heinean, euren krimenen presentzia ere areagotzen da eta horrek zailtasunak gehitzen dizkio terrorismoak hamarkadetan eragindako mina konpontzeko lanari. Memoria eta bizikidetzeta Euskadin pendiente daude eta euskal sozialistak bonba, tiro eta mehatxu artean defendatu ditugun printzipioak berresten ditugu egunero. Inork ez luke hila, bahitua edo torturatua izan behar aberri edo estatu arrazoiengatik. Gure gazteek jakin egin behar dute zer gertatu zen eta zer ez litzatekeen gertatu behar, jakin behar dute nortzuk izan ziren eragileak eta zeintzuk sufritu zuten. Hori da berriz ez gertatzeko bidea. Indarkeria injustu baten ondorioz tiroz edo lehergailu baten eztandaz hildako bakoitza gogoratzen den lekuan egongo gara sozialistok, mina errekonozitzea behar duten hondatutako familiak daudelako. Eta hau guztia denok barneratzea da Euskadi eraikitzea, euskal sozialistak nahi dugun gizarte eraikitzea, benetakoa bizikidetzaren aldeko apustua eginez. Hori gertatzean batuko gara.

**“Elkarbizitzarako bidea egiten hasteko, ezinbestekoa da ETA betiko eta baldintzarik gabe desagitea”**

## **7. Euskarak eta Euskal kulturak zer pisu daukate zuen agendetan?**

Sozialistontzat garrantzitsua da euskara komunikatzeko eta zerbitzuetarako tresna bezala sustatzea, baina euskararen inposizioaren eta bazterketa politikorako tresnatzat erabiltzearen kontra gaude.

## **8. Nolako udal gobernua aurreikusten duzu?**

Mendaroan orain dela lau urte PSE-EEri erakutsi zioten konfiantza berritzea espero dugu, eta udal gobernuarentzat elementu klabea izatea nahi dugu. Udal gobernua plurala, egonkorra eta gehiengoarena izan behar da. Mendarok negoziatorako eta elkarrizketarako udal gobernu merezi du, ez inposiziorakoa.

## **9. Eragile askok dihardute herrigintzan. Nola baloratzen duzue herrigintzan egiten ari diren lana eta administrazio publikoak zein hartueman izan behar luke zure ustez herrigintzan dihardutenekin?**

Garrantzitsua da Mendaroko gizarte sektore desberdinetako eragileen bidez artikulatzea.

Horrek erakusten du jendeak interesa duela, eta garrantzitsua da erakunde horiek kontuan hartzea proiektuak, programak eta ekintzak aurrera eramateko. Udalarekin gertuko harremana izan behar dute erakundeek, benetakoa eta aldirokoa. Udala, udal sailak eta zinegotziak lanerako eta herritarren eskariei erantzuteko gaude. Errealistak izan behar dugu, eta gure arteko harremana elkarlanean eta kooperazioan oinarritu behar dugu.

## **10. Alkate izatera iritsiko bazina zer da egingo zenukeen aurreneko gauza?**

Enplegua eta behar handienak dituztenentzako gizarte politikak bilzen dituen lau urterako programa osatuko nuke lehendabizi. Herritar guztien beharrei erantzun behar diegu, eta ahalik eta gizarte libre eta parekideena sortu behar dugu, herri honen eta bertako bizilagunen garapena sustatzeko, oparotasunean eta inteligentzian oinarrituta. Enpleguari eta hezkuntzari dagokionean Lanbide, Debegesa eta Udalaren arteko lan-mahai bat sortzearen aldeko apustua egiten dugu enplegua sortzeko.

## Morkaiko Eguna antolatu dute biharko

Elgoibarko Mendi Itzuliak, itzulitxoak eta Finalista Egunak bat egingo dute

2011n hasitako bideari segida emanez, Morkaikoren Eguna antolatu du Morkaiko mendi taldeak biharko. Hortaz, bosgarren urtez jarraian, Elgoibarko mendi itzulia, itzulitxoak eta finalista eguna batera egingo dituzte. Elgoibarko mendi itzulia nagusientzako itzulia da. 38 kilometro ditu ibilbideak, eta partaideek 2.000 metro inguruko desnibel positiboa gainditu beharko dute. Irteera 6:00etan izango da Kalegoen plazatik. Haurrentzako, berriz, itzulitxoak prestatu dute. Morkaiko mendira (520m) igo, Aiastian indarrak berreskuratu eta Elgoibarrera jaitsiko dira berriro ume eta gurasoak. 9:00etan izango da irteera Kalegoen plazatik, eta 10:00etan Idortobetik. Azkenik, finalista eguneko domina banaketa ekitaldia 13:30ean egingo dute



Kalegoen plazan. Gero Kalegoen plazan bazkaltzeko aukera egongo da.

Morkaiko Egunean parte hartzeko izena eman behar da. Oraindik izena eman ez duzuenok [morkaiko@morkaiko.eus](mailto:morkaiko@morkaiko.eus) helbidera idatzi dezakezue. Morkaikoko baz-

kideek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta 12 euro bazkide ez direnek. Bihar bertan ere egongo da izena emateko aukera, baina 8 beharrean, 13 euro ordaindu beharko dituzte bazkideek, eta 17 euro bazkide ez direnek.

## Autobusa antolatu dute kadete nesken Espainiako txapelketa ikustera joateko



Tecnifuelle kadete neskek Iruñean jokatu dute Espainiako txapelketa maiatzaren 22an, 23an eta 24an. Malkaitz eskubaloia, BM Palencia, Knet Casalancio eta Tecnifuelle izango dira sektoreko taldeak. Azken partida Burlatako Malkaitz taldearen kontra jokatu dute hilaren 24an, eta taldekideen gurasoek autobusa antolatu dute partida ikustera joateko. Interesatuak 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta Udal Liburutegian eman beharko dute izena. 9:30ean irtengo da autobusa Txariduna errotonditik.

### Gipuzkoako kopa

Astigarraga jubenil nesken taldeak, bestalde, Gipuzkoako Kopako finalerdietako lehen partida jokatu du bihar Olaizaga kiroldegian Bera Bera taldearen kontra. 12:30ean hasiko da partida.

## Eli Ibarrak munduko futbol txapelketa jokatu du Espainiako selekzioarekin

Eli Ibarra Athletic taldeko jokalaria elgoibartarra munduko futbol txapelketa jokatzeko deitu du Ignacio Quereda Espainiako hautatzaileak. Aurtengo udan jokatu dute munduko futbol txapelketa, Kanadan, eta 23 jokalarik osatu dute Espainiako taldea.





# Pala taldeko kideek hartuko dute Lagunak pilota eskolaren ardura

Aurrera begirako asmoak zehaztuko dituzte

Lagunak Pilota Eskolako pala taldeak hartuko du eskolaren ardura aurrerantz. 30 urteren ostean pilota eskolaren zuzendaritza lagatzeko asmoa erakutsi zuten egungo arduradunek, eta erreleboa hartzeko prest agertu dira pala taldeko jokalariek. Egungo taldeak euren zeregina behin betirako uzten duenean, taldearen organigrama eta aurrera begirako asmoak zeintzuk diren jakinaraziko dutela aurreratu dute. Elgoibarko eta inguruko herriko ume eta gazteei pilotaren bueltan bizitzeko eta hezteko aukera eman nahi diete, Udalaren eta kolaboratzaile pribatuen laguntzarekin. Pilota eskolak ahalik eta indar gehienarekin aurrera egitea nahi dute, eta espero dute denen artean beste 30 urte irautea.



Ikasturte amaieran lagako du kargua egungo lantaldeak.

## 55 neska-mutilek eman dute izena Sanlok antolatutako Eskubaloi Campuserako

Sanlok jakinarazi duenez aurten gora egin du izen-emate kopuruak, eta 55 neska-mutilek eman dute izena udarako eskubaloi campuserako. Elgoibar, Eibar, Zumaia, Gasteiz, Oion eta Bilboko jokalariek izango dira aurten. Arduradunek jakinarazi dute oraindik plaza libre gutxi batzuk geratzen direla, beraz, nahi duenak ekainaren 1era arte izango du izena emateko aukera. Informazio gehiago nahi izanez gero, [sanlolatxo@gmail.com](mailto:sanlolatxo@gmail.com) helbidera idatzi edo 679 088 201 (lon) telefonora deitu daiteke.

Era berean, jakinarazi dute maiatzaren 15etik aurrera egin beharko dela bigarren ordainketa.

Ekainaren erdialdera bilera egingo dute gurasoekin campusaren nondik norakoak azaltzeko.

Huescako Canfranc herrian izango da eskubaloi campusa uztailean, eta besteak beste, mendi ibilbideak, jolasak, gaubelak eta kirol desberdinak probatzeko aukera izango dute umeez, euskal giroan.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Touring 0 (Pref.)  
Intxurre 5 – Elgoibar 1 (Erreg.)  
Eibar 4 – Elgoibar 1 (Jub.)  
Elgoibar 1 – Zarautz 3 (Kad. A)  
Elgoibar 1 – Urola 1 (Kad. B)  
Elgoibar 3 – Hondarribia 1 (Lehen. inf.)  
Lazkao 3 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)  
Aloña Mendi 5 – Elgoibar 3 (Aleb.)  
Bergara 0 – Elgoibar 13 (Aleb.)

### ESKU PILOTA

4 t'erdiko udaberri txapelketa  
LAPKE 17 – Lagunak 22 (1. jub.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 4 – Fuenmayor 2 (2B)

### ESKUBALOI

Ereintza 15 – Lauko Elg. 32 (Sen. neska.)  
Alkorta Elg. 32 – Hondarribia 18 (Sen. mut.)  
Zarautz 21 – Gabaz Elg. 34 (Sen. mut.)  
Legazpi 22 – Astigarraga Elg. 29 (Jub. neska.)  
Zarautz 36 – Beristain Elg. 13 (Jub. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 36 – Aloña Mendi 15 (Kad. neska.)  
Eibar 16 – Bankoa Elg. 45 (Kad. mut.)  
Deca Elg. 30 – Corazonistas 22 (Kad. mut.)  
San Roke Elg. 27 – Aiala 13 (Inf. neska.)  
Cometel Elg. 25 – Aiala 15 (Inf. neska.)  
Ikus Elg. 20 – Usurbil 15 (Inf. neska.)  
Txarriduna Elg. 31 – Bera Bera 14 (Inf. mut.)  
Murgil Elg. 24 – Bera Bera 14 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16

16:30 Elgoibar – Billabona (Erreg.)

18:30 Elgoibar – Billabona (Jub.)

### ESKUBALOI (Kiroldegian)

Zapatua, 16

10:00 San Roke Elg. – Pulpo (Inf. neska.)

11:15 Txarriduna Elg. – Bidasoa A (Inf. mut.)

12:30 Astigarraga Elg. – Bera Bera (Jub. neska.)

16:00 Pneumax Elg. – Aloña Mendi B (Kad. neska.)

17:30 Beristain Elg. – Egia (Jub. mut.)

19:00 Gabaz Elg. – Pulpo (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barixakua, 15

21:00 Lagunak – LAPKE (1. jub.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ **617 571 210**
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientziarekin. ☎ **631 506 763**
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernari lanerako, sukaldari laguntzaile zein ostalaritzako mantentzen zerbizuan lan egiteko. ☎ **661 064 027**
- Pertsona bat eskaintzen da adinekoak zaintzeko, sukalde laguntzaile izateko edo garbiketara lanak egiteko. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile aritzeko. ☎ **606 354 982**
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. ☎ **632 767 696**
- Irailetik aurrera umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **633 808 931**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketara egiteko. Gaez ere bai. ☎ **688 959 575**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **631 124 942**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Premiazkoa. ☎ **688 682 398**
- Mutila eskaintzen da arotz lanerako, garbiketara egiteko, sukaldari laguntzaile edo banaketa lanerako. Gidabaimenarekin. ☎ **698 451 205**

- Neska eskaintzen da garbiketa lanerako edo umeak zein nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **631 834 241**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zein umeak zaintzen ditut eta baita garbiketara lanak egin ere. ☎ **620 258 708**
- Emakumea lan bila. Adinekoak zein umeak zaintzen ditut. Adinekoak zein umeak zaintzen ditut eta baita garbiketara lanak egin ere. ☎ **686 077 564**
- Adinekoak zaintzen ditut, gaez nahiz arratsaldez, orduka. Portalak garbitzen ere egingo nuke lan. Gidabaimena daukat. ☎ **631 343 232**
- Emakumeak adinekoak zaintzen lan egingo luke. ☎ **632 280 215**
- Neska eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**

**ESKAITZA**

- Udarako zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali CV: [kamareroa@gmail.com](mailto:kamareroa@gmail.com)

**ETXEBIZITZAK**

- Etxea edo logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **636 310 711**
- Pisu eguzkitsua eta berritua alokatzen dut Santa Klaran igogailuarekin. 3 logela, egongela, komuna, balkoia. ☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**

- Apartamentua alokatzen dut Errosario kalean. Berritua, altzariekin. ☎ **653 863 482 (20:00-22:00)**

**KINTOAK**

- 1949an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 13an, Sigman. 12:30ean argazkia elizako arkupean eta gero luntxa Ibai Ondo erretegian. 50 euro sartu behar dira Caixan: 2160 4168 74 2100298970. Izena emateko azken eguna ekainaren 6a. ☎ **627 760 248 (Manu Konde)**
- 1955ean jaio eta aurten 60 urte egingo dituztenen bazkaria ekainaren 6an, Sigman. 12:00etan Maalako elizan meza, gero argazkia eta luntxa Txarridunan. 60 euro sartu behar dira Laboral Kutxan: 3035 0007 25 0071116963. ☎ **627 760 248 (Manu Konde)**
- 1946ko kintoek Iruñeara txangoa egingo dute maiatzaren 16an. Autobusa 9:30ean Txankakuan. 60 euro Kutxa: 2095 5036 50 9114932502. Azken eguna: maiatzak 14. ☎ **650 725 977 (Pili) / 656 743 975 (Izaskun)**
- 50 urtekoen kinto bazkaria maiatzaren 23an, Sigman. 11:45 plazan elkartuko dira. 12:00etan, meza; 12:15ean argazkia bolatokian, eta segidan luntxa, Zubi Ondo elkarteran. 14:30 bazkaria. 69 euro sartu behar dira Bankoan: 0138 0020 11 0010695759.


- Elgoibarren 1960an jaiotako kinto bazkaria antolatu dugu. Ekainaren 6an izango da Txarriduna jaietxean. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna: maiatzak 5. ☎ **627 856 989**
- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txarridunan. 40 euro. Castrillejo estankoen eman izena hilaren 22rako.

**MOTORRA**


- Opel Corsa salgai. Diesel, berde iluna. Merke. ☎ **627 856 989**

**BESTELAKOAK**

- Urrezko pultsera galdu dut. Izena eta data grabatuta dauzka. Balio sentimental handia. Ordainsaria emango dut. ☎ **639 433 144 / 943 742 225**
- Katuak oparitzen ditut. ☎ **672 153 042**
- Betaurrekoak galdu nituen maiatzaren 4an San Bartolome kalea eta Mintxeta artean. Estutxe beltza, letra gorriekin. ☎ **619 121 332**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**




**Etxe baten jabe naiz, eta semearen izenean jarri nahiko nuke, eta gustatuko litzaidake zeintzuk pauso jarraitu behar ditudan jakitzea.**

Jabetza aldaketa egingo duzun moduaren arabera da hori. Eman diezaiokezu etxea zeu bizi zaren artean edo erabaki dezakezu zeu hil osterako uztea hori lotuta, testamendu baten edo eta azken borondatea izendatzeko beste edozein moduren bidez. Zeu bizi zarela eman nahiko bazenien, bi modu daukazuzu:

1. Utzi diezaiokezu dohaintzan. Hau da, zeuk hala nahi duzulako eman diezaiokezu dohaintzan. Modu horretan eginez gero, Dohaintzarako eta Oinordekotzarako Zerga ordaindu beharko zenuke. Senipartea kalkulatzeko orduan eragina dauka horrek, etxe horrek jabe bakarra izango duelako: zeure semea. Hau da, haren balizko ezkontideak ez du parterik izango hor.
2. Kostu bidez ematea ere izango duzu. Salduta, zeu bizi zaren artean erabiltzeko aukera izateko baldintzapean emanda edo bizi zaren artean zuri errenta jakin bat ordaintzeko baldintzarekin emanda. Kasu horietan Ondasunen Trasmisiorako Zerga ordaindu beharko zenuke.

**AHOLKUA: Etxe horren titulartasuna zein modutan aldatu nahi duzun erabaki behar duzu, horrek arabera zerga bat edo beste bat ordaindu beharko duzulako.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
 Colegiado de Profesores de Administración de Empresas





• Zorionak, **Lorea** zure lehenengo jaunartzean. Muxu handi bat etxeko eta, bereziki, Otso-Txikikoen partez.



• Zorionak, **Lorea**, maiatzaren 11n 9 urte bete zenituelako. Berekada handi bat etxeko eta, bereziki, Otso-Txikikoen partez.



• Zorionak, **Laida**, asatelehenean urte bat bete zenuelako. Etxeko partez.



• Zorionak gure pottokorik **Eneko!** Zein azkar pasa den zure lehen urtekoa! Pa handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Laiaren partez!



• Zorionak, **Alain**, igandean 9 urte egingo dituzulako. Muxuak etxeko eta, bereziki, arreba Ainararen partez.



• **Gure txikia** aurrera doa, eta konturatu orduko urte bat egin du! Zorionak eta patxo handi bat Oier, Aimar eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Asier**, igandean 6 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amaxo eta Unairen partez.



• Zorionak, **Haitz**, zure zazpigarren urtebetetzean!! Muxu pila bat familiako eta, bereziki, Maddalenen partez.



• Zorionak, **Garazi!** Gure etxeko printzesa txikiak 6 urte! Muxu handi-handi bat etxeko denon partez, eta, bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Naroa**, 9 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Oier**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxuak familiako eta, bereziki, Hodei, Ane eta Nahiaren partez.




• Bihar ezkondata egin dituzuen 62 urteak eta nobiotan elkarrekin egindakoak ospatuko ditugu. Asko maite zaituztegu.



Maiatzaren 30ean Urbizik antolatutako urpekaritza saioan hartuko dugu parte. Animatu zaitzete!

Maiatzaren 18an, eskulanak Maalako parkean, 5-12 urte bitarteko haur guztientzat! 17:00etatik 19:00etara



# HERRITARROK *garaile!*

## EKITALDIAK

- **M19 - 19:00,**  
Elgoibarko Kalegoen plazan
- **M22 - 20:00,**  
Mendaroko Mendarozabal plazan

EMAN BOTOA



## 16 zapatua

### Kirola

**6:00** Morkaiko Eguna  
Elgoibarko mendi itzulia eta itzulitxoa egingo dituzte, eta gero Finalista Eguneke dominak banatuko dituzte. Kalegoen plazan.

### Bertsolaritza

**22:30** Plazatik Gaztetxera  
Elgoibarko kanporaketa jokatu da, Gaztetxean.

## 17 domeka

### Txikimusika

**17:00** Mursego  
Euskal Eskola Publikoaren jaiaren barruan, Mursegoren kontzertua, Kultur Etxeko sotoan.

## 19 martitzena

### Hauteskundeak

**19:00** EHBilduren ekitaldia  
Kalegoen plazan.

## 20 eguaztena

### Bertsogintza

**18:00** Ikasturte amaierako jaialdia  
Herriko Antzokian.

## 21 eguena

### Bertsogintza

**18:00** Ikasturte amaierako jaialdia  
Herriko Antzokian.

### Ipuin kontalaria

**17:00** Xalxo pailazoa  
HH4ko umeentzako, Udal Liburutegian.

## 22 barixakua

### Hauteskundeak

**20:00** EHBilduren ekitaldia  
Mendaroko Mendarozabal plazan.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
15 Oruesagasti 16 Barrenetxea 17 Barrenetxea 18 Ibañez 19 Yudego 20 Etxeberria 21 Fernandez 22 Oruesagasti	Astehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

### «Negociador»

15, barixakua: 21:30  
16, zapatua: 19:00 / 22:15  
(VOS)

17, domeka: 19:00  
18, astlehena: 21:30

### «Zazpigarren ipotxa»

17, domeka: 16:30

## GALIZA ETXEKO JAIK (Aita Agirre plazan)

### 15 BARIXAKUA

**19:30** Jaien hasiera  
Jose Filgueira Valverderen omenez.  
**Segidan**, muskuiluen dastaketa  
**20:00 eta 23:00** Dantzaldia  
Compostela orkestrarekin.

Banda de gaitas de Piloño taldearekin. Kalegoen plazan.  
**20:00** Galizako produktuen dastaketa  
**20:00 eta 23:00** Dantzaldia Almirantes taldearekin.  
**00:00** Queimada

### 16 ZAPATUA

**11:00** Produktuen dastaketa  
**12:00** Gaiteroen ekitaldia  
Banda de gaitas de Piloño taldearekin.  
**13:00** Bermut-dantzaldia  
**18:30** Dantza erakustaldia  
Haritz dantza taldea eta

### 17 DOMEKA

**11:00** Galizako produktuen dastaketa  
**11:30** Meza  
Banda de gaitas de Piloño taldeak eta parrokiako abesbatzak hartuko dute parte.  
**14:30** Bazkaria  
Galiza Etxean.



**Mari Jose Ruiz Porres**  
Doktorea  
**GINEKOLOGOA**  
mj.ruizporres@gmail.com

---

Madina Radiologia  
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar  
Tel.: 943 202 857

**Zu zaintzeko zerbitzu onena eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko dugu.**

## Debabarreneko eta Debagoieneko industria-enpresen arteko I. Topaketa



Ekintza hau PO FSE 2007-2013 VALORA programako egitasmo bat da. Europako Gizarte Funtsek %50ean kofinantzatua



maiatzak 22  
9:00 – 13:00  
Debegesa  
(Azitain Industrialdea 3 bis – EIBAR)  
PLAZA KOPURU MUGATUA  
email: baindustriali@gmail.com

# Udal eta Foru

hauteskundeak



Ane Beitia

Jose Luis Ibarzabal

Nerea Alustiza

Sofia Vazquez

## Zuzeneko elkarrizketa digitalak Elgoibarko alkategaiekin

Maiatzak 18, astelehena  
*Sofia Vazquez (PP)*

Maiatzak 19, martitzena  
*Nerea Alustiza (PSE-EE)*

Maiatzak 20, eguaztena  
*Jose Luis Ibarzabal (EHBildu)*

Maiatzak 21, eguena  
*Ane Beitia (EAJ)*

**B**

BARREN

Aurrez galderak bidaltzeko aukera dago  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### III. URTEURRENA

## SABINO INTXAURRAGA REKALDE

2012ko maiatzaren 26an hil zen, 78 urte zituela.

Haren oroimenez III. urteurrenako meza izango da, zapatuan, maiatzak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



### I. URTEURRENA

## JOSE IGNACIO ULACIA ETXEBERRIA

2014ko maiatzaren 10ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, maiatzak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.







**EZKONTZAK  
BATAIOAK  
JAUNARTZEAK  
AGURRAK  
KINTADAK** **KARAOKE** arekin

**Sigma**  
**jatetxea**

"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

Tel.: 943 748 531  
675 708 160  
[sigma.jatetxea@gmail.com](mailto:sigma.jatetxea@gmail.com)

**ORDUTEGIA**

7:30etik 22:00etara

Astelehen arratsaldeetan itxia

Igandetan erreserba eginez gero zabalik.

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

*HH 0-1eko matrikulak zabalik maiatzaren 18tik 29ra*

*HH 0 (2015ean jaiotakoak) iraillean eta urrian hasteko.*

*HH 1 (2014 an jaiotakoak) iraillean hasteko.*



elgoibar ikastola



*IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen bilera maiatzaren 18an, 18:00etan*



**IMH**  
**ELGOIBAR**

*Prestakuntza  
Integratua:  
Zure neurria  
egindako ibilbidea*

Ingeniaritza **DUALA** imh  
UNIBERTSITATE ESKOLA



DBH  
amaituta:  
**Erdi-Mailako  
HEZIKETA ZIKLO  
INDUSTRIALAK**

Sarrera  
froga

Batzilergoa  
amaituta  
**Goi-Mailako  
HEZIKETA ZIKLO  
INDUSTRIALAK**

38 kreditu  
baliozkotzea

Goi-Mailako  
Heziketa Zikloa  
amaituta:  
**Ingeniaritza Dualeko  
UNIBERTSITATE  
GRADUA**

- Atzerrian praktikak egiteko aukera zabalik
- Ekipamendu aurreratua

- Etekin Handiko taldeak
- Eredu Duala (Goi-Mailan)
- Eredu Eleanitzak

- Alternantzia: 1. urteko 2. seihilekoan Goi-ziklo baten ondoren 38 kreditu baliozkotu daitezke: urte erdiko prestakuntzaren baliozkotzea

**Informazio saioa: Maiatzak 23, 11:00** etan

Saio gehiago: [www.imh.eus](http://www.imh.eus) / Bertaratzea baieztatu 943744132 tfnoan.